

FAMILIA ETA SEXU ANIZTASUNAREN INGURUKO FORMAKUNTZAK

IRUNGO UDALA - GEHITU ELKARTEA - DESERAIKIZ

2024-2025 IKASTURTEA

1. SARRERA	2
2. HELBURUAK	4
3. ESKU HARTZEAREN HARTZAILEAK	5
4. SAIOEN DESKRIBAPENA	7
4.1. LEHENENGO SAIOA: LGTBIQ+ KOLEKTIBOA ETA ANIZTASUNA.	7
4.2. BIGARREN SAIOA: FAMILIA ANIZTASUNA.	9
4.3. HIRUGARREN SAIOA: BAZTERKETA EGOEREI AURRE EGITEKO BALIABIDEAK.	10
5. EBALUAKETA	12
5.1. IKASLEEN EBALUAKETA	12
5.2. HELBURUEN EBALUAKETA	15
1.1. HEZITZAILEEN EBALUAKETA OROKORRA	18
2. ERANSKINAK	21



1. SARRERA

Ondorengo lerroetan Irungo zenbait eskoletan burutu den proiektuaren nolakotasunak zehaztuko dira, proiektu honen erantzule izan dira Gehitu elkarteak eta Irungo Udala, eta honakoa burutu dutenak Deseraikiz entitateko hezitzaitezak izan dira. 2024ko urritik abendura bitartean 9 eskolek parte hartu dute aniztasun sexual eta famili aniztasunaren inguruko saioetan.

Tailerra Lehen Hezkuntzako 6. eta 5. mailako ikasleek jaso dute, daude, 9-12 urte bitarteko ikasleak. Adin goiztiarretan honako gaiak jorratzea ezinbestekotzat jotzen dugu, izan ere, geroz eta anitzagoa den gizarte batean bizi gara, eta zinez garrantzitsua da haurrek txikitatik hautematea desberdintasunetik eratorri daitekeen aberastasuna, bai indibidualki zein gizarte mailan erreparatuz gero, hori izango litzateke azken finean proiektuaren funtsa.

Gizarteari erreparatuz gero, arau sozialak betetzen dituen oro saritu egiten da baina inposatutako rol horietatik kanpo dauden errealitate desberdinak aldiz baztertzeko joera dago, pertsona hauen bizitzak irmoki kaltetuz. Egoera honen esku-hartze urriak areagotzen ari diren gorroto diskurtsoak sustatzen ditu.

Eskolak gizartearen islada dira, bertan maiz topa ditzakegu diskurtso kutsakor horiek eta azkar zabaltzeko joera dute kasu askotan esku-hartze egoki bat egiten ez bada. Horregatik ezinbestekoa da aniztasunarekin lotutako bizipenak (norberarenak zein ingurukoenak) positiboak izatea eta errealitate desberdinak ikusaraztea. Horrela, gizartean aurki daitezkeen desberdintasunei ematen zaien ikuspuntu positibo hori adin helduagoetan mantentzea lortuko da.


Eskolan igarotako adin-tartea garrantzi handiko etapa da pertsonen garapenean, moralaren eraikuntzan, autoestiman, inguruaren hautematean eta abar. Gainera, txiki-txikitik eraikitzen dugu gure identitatea, eta sexualitateak bere orokortasunean haurtzarotik zeharkatzen gaituela esan dezakegu. Horregatik, identitatearekin eta desirarekin lotutako bizipen batzuek eragina izan dezakete ikasleen etorkizunean edo askotan pasatzen den bezala orainaldian.

Tamalez, ikerketa ugari erakutsi dute aipatutako gaian zein beste batzuetan (arrazakeria, matxismoa edo maila sozioekonomikoa, esaterako) eskolak askotan ez direla gune seguruak izaten, formakuntza hauek oso gauza puntuala izaten baitira eta askotan eskolek ez dute gaitasunik trataera sakon bat egiteko.

Ukaezina da aurrerapen handiak egin direla hezkuntza-sisteman eta sensibilizazio-mailan hezkuntza afektibo-sexuala ikasgelan jorratzerako orduan, askotan tailer hauek hastapen bat izaten dira gelaren egoera aztertzeke eta gero jorratu diren gaiei heltzeko.


Alabaina, eredu zisheterosexistek bere horretan jarraitzen dute eta beraz, aniztasunaren trataerarako ekimenak sortzen jarraitu behar da ezinbestean, berdintasunerako apostua eginez.

Hezkuntza-sistemak erantzukizun handia du transformazio honetan, arestian aipatu bezala gizartearen islada baita eta gizartearen eraldaketa orokorrean eragiteaz gain, ikasleen garapen pertsonal indibidualean lagundu eta babesteko



2. HELBURUAK

Proiektu honenekin hainbat dira bete nahi izan diren helburuak. Oinarrizko helburua Irungo 5. eta 6. LH-ko ikasleak aniztasun sexualean eta familia aniztasunean hezte da, honakoa ulertu, eta haurrak hausnarketara bultzatuz. Horretarako, aniztasunarekiko errespetua sustatu nahi da eta gatazka egoerak ekiditeko tresnak eratortzeari emango zaio garrantzia.



3. ESKU HARTZEAREN HARTZAILEAK

Jarraian betetako taulan, formakuntza jaso duten eskolak agertzen dira. Eskola bakoitzean dagoen talde eta ikasle kopuruak islatzen dira, identitateen arabera bereizita.


IKASTETXEA	MAILA	TALDE KOPURUA	IDENTITATEA					GUZTIRA
			EMAKUMEA	GIZONA	EZ BITARRA	EZ DAKIT	EZ DUT ERANTZUN NAHI	
EGUZKITZA	5	2	17	23	2	2	0	44
TOKI ALAI	6	3	37	28	0	2	0	67
BELASKOENEA	6	2	5	16	0	1	0	22
EL PILAR	6	2	22	25	0	1	1	49
DUNBOA	6	2	19	18	0	2	0	39
LA SALLE	6	2	22	23	0	4	0	49
TXINGUDI	5	4	43	42	1	3	0	89
LEKAENEA	6	1	8	6	0	0	0	14
ELATZETA	6	3	22	22	1	0	0	45
GUZTIRA		21	195	203	4	15	1	418

2024-2025 ikastutean, bederatzi eskolek parte hartu dute guztira. Irungo eskola gehienek eskaera egin dute, bi eskolek izan ezik. Beraz, Irungo eskolek edukiarekiko duten interesa oso handia dela nabaria da, proiektua burutu den eskola guztietan errepikatu baita formakuntza.

Aitzitik, proiektua burutzen den hirugarren urtea da, eta interesa mantentzea oso adierazle positiboa da, ikusten baitute beharrezkoa dela eta urteen poderioz lortu diren emaitzak esanguratsuak izan direla.

Guztira 418 ikaslek parte hartu dute, horien artean 195 neska, 203 mutil eta 20 ez-bitar egon direlarik. Aurten ez dakitenak eta erantzun nahi izan ez dutenak banandu ditugu, ez-bitarren kopurua zehaztu nahian.

IKASLEEN IDENTITATEA



Aurreko urtearekin alderatuz, ikasle gehiagok parte hartu dute eskola bateko lerroan talde bat gehiago sortu dutelako. Mutil kopurua neskena baino handiago izan arren, neska eta mutilen arteko desberdintasuna oso parekatuta dago eta ez-bitarren kopurua zertxobait jeitxi da. Esan bezala aurtengo datuak zehatzagoak izan dira identitateari dagokionez eta bi bereizketa gehiago egin dira. Hala ere, kopuru guztiak bateratuz, aurreko urtekoa baino txikiagoa izaten jarraitzen du.

4. SAIOEN DESKRIBAPENA

Gela bakoitzarekin 3 orduko formakuntza egin dugu, ordu bakoitza testuinguru desberdinetara zuzenduta dago: Lehenengo saioan aniztasunaren inguruan hitz egiten da; bigarrenetan sexu aniztasuna jorratzen da ezagutzen dituzten maitatzeko eta sentitzeko modu desberdinak aipatuz; eta hirugarrenean, familia aniztasuna lantzen da. Hurrengo lerroetan, modu sakonago batean saioen deskribapena azalduko da.

4.1. LEHENENGO SAIOA: LGTBIQ+ KOLEKTIBOA ETA ANIZTASUNA.

- Aurkezpenak:

Talde sentimendua sustatzeko eta konfiantza giroa sortzeko, aurkezpenak egin dira. Bakoitzak norbere burua aurkeztu eta bere zaletasun berri eman du. Azkenik, proiektua aurkeztu da (Irungo Udala eta Gehitu+ elkarteak).

- Aniztasuna:

Gizartean topatu daitezkeen desberdinatuen inguruan hitz egin aurretik, *Love Has No Labels* bideoa jarri zaie. Bertan pertsona mota desberdinak agertzen dira eta aurkitu dituztenak zerrendatzen dira.

Love Has No Labels: <https://www.youtube.com/watch?v=PnDgZuGhHs>

Gizartearen ezberdintasunak ezagutu ondoren, norberak gizartearekin duen harremana landu da. Horretarako aniztasunaren ideia landu da honako galdera hauen bidez:

- Zertan izan gaitezke ezberdinak? Erlajioa, adina, jatorria, aniztasun funtzionala, familia eta aniztasun afektibo sexuala besteak beste.
- Ezberdintasun horik aberasgarriak dira? Zergati

Urkatuaren jolasaren bitartez, *ANIZTASUNA* hitza idatzi da arbelean eta saioari amaiera emateko, jolas bat egin da aniztasunaren ideia barnerratzeko.

- Teorizazioa: LGTBIQ+ eta Aniztasuna:

Identitatea eta desirarekin zerikusia duten hitzak landu dira. Ideia zaparradaren dinamikaren bidez, entzun dituzten kontzeptuen berri eman dute eta bide batez gelaren jakintza maila ezagutzeko balio izan digu.

Dena den, beti landu diren kontzeptuak egon dira: Gay, lesbiana, bisexuala, heterosexuala, asexuala, transexuala genero jariakorra eta genero ez-bitarra.

- Transexualitatea:

Gaur egun transexualitatea indarra hartzen ari den kolektiboa da eta garrantzi handiagoa eman nahi izan zaio. Horretarako, azalpenez gain, bideo baten bidez landu da. Mikelek, bideoko protagonistak, haien adin antzekoa dauka eta bere trantsizioa oso positiboa izan da. Erreferente bihurtu daiteke zenbait haurrentzako.

MIKELE: <https://www.youtube.com/watch?v=EE4-zM0bRIw&t=2271s>

- Laukien jolasa:

Bakoitzari orri zati bat eman zaio eta bertan, bi lerroen bitartez (eskubitik ezkerrera eta goitik bera) lau lauki egin dituzte. Lau galdera egin zaizkie eta inorekin hitz egin gabe, lauki bakoitzean erantzun bat idatzi dute.

- Zein animalia izan nahiko zenuke?
- Zein da gehien gustoko duzun janaria?
- Nora bidaiatu nahiko zenuke?
- Zein da zure superbotere gustokoena?


Amaitzerakoan, lau erantzun berdin idatzi dituen norbait bilatu behar dute. Aurkitzea zaila denez, beraien artean ezberdinak direla ondorioztatzen da eta modu positiboan azpimarratu da. Desberdintasunetik elkarrengandik ikas dezakete eta norberaren mundu ikuskera zabaldu.

4.2. BIGARREN SAIOA: FAMILIA ANIZTASUNA.

Aurreko saioaren inguruko laburpena eginez, ideia nagusiak gogora ekarri dira. Horren harira, familia aniztasunaren gaia joko baten bitartez landu da.

- RolePlaying:

Familyverse karta jolasa erabili da. Lehenik eta behin, taldeak sortu dira, taldekide bakoitzari karta bat eman zaio eta bertan ageri den pertsonaia antzeztu behar izan dute. Talde bakoitzak familia mota bat antzeztu du eta aniztasunaren inguruko gogoeta bat plazaratu. Adibide gisa, hauek dira tokatu diren familiak:



RolePlaying-a prestatzeko denbora eman zaie eta talde guztiak prest egoterakoan, gela aurrean antzeztu dute. Antzerki bakoitzaren amaieran familia bakoitzean ikusi diren aniztasunaren inguruan eta familia mota ezberdinen inguruan hausnartu da: Horrelako familia baten parte garelako, gure inguruan topa ditzakegulako edo gelakide baten errealitatea izan daitekeelako.

4.3. HIRUGARREN SAIOA: BAZTERKETA EGOEREI AURRE EGITEKO BALIABIDEAK.

Azken saioan, desberdintasunen aurrean egon daitezkeen diskriminazio egoerak landu dira. Honen helburua horrelako egoeren aurrean zein erantzun posible egon daitezkeen jakitea da. Saioari hasiera emateko, lehenengo egunean landutakoa ekarriko da gogora; aniztasuna eta errespetua, besteak beste. Horren harira, urkatuaren jolasaren bitartez, *DISKRIMINAZIOA* hitza idatzi da gaiari hasiera emateko.

Zergatik baztertzen dugu desberdina den hori? Zein jarrera dugu horren aurrean?

Garrantzitsua da ulertaraztea etiketa desberdinen esanahia jakiteak ez duela ezertarako balio horiek errespetatzen ez badira. Beraz, edozein bazterketa egoerei aurre egiteko talde sentimendu indartsua eta elkarren arteko babesa sustatzea ezinbestekoa da.

Norberaren alderdi positiboak azpimarratzeko, oparien jolasa egin da. Ikasle bakoitzari paper zati batean bere izena idaztea eskatu zaio. Paper zati guztiak jaso eta nahastu egin dira, mahai desberdinetan utziz. Ikasleei arbelean lerro zuzen bat egitea eskatu zaie eta musikaren bitartez, gelatik dantzatzea eskatu zaie.


Musika gelditzerakoan, gertuen dagoen mahaian eseri eta tokatu zaien paperean, pertsona horren inguruko bi ezaugarri positibo idaztea eskatu zaie modu anonimoan. Prozesua errepikatu egin da eta paperak jaso dira.

Bakoitza bere tokira bueltatzerakoan, orriak banatu dira eta idatzi dizkieten ezaugarri positiboak lehenengo pertsonan irakurri dituzte. Honen bitartez, gelan baloratuta sentitzea bilatu da.

- Ebaluaketa:

Amaitzeko, hiru saioen ebaluaketa erraz bat erantzutea eskatu zaie. Ebaluaketa anonimoa izan da eta ondorengo galdera hauei erantzun diete:

- Zer da gehien gustatu zaizuna?
- Zer da gutxien gustatu zaizuna?
- Nota bat jarri batetik hamarrera.
- Zein da zure identitatea?
- Irukin librea. Hobetzeko proposamenik?



5. EBALUAKETA

Proiektuaren ebaluaketa egiteko, hiru dira kontutan hartu diren muinak: alde batetik, ikasleek burututako ebaluazioak; bestetik, aurrez ezarritako helburuak arrakastaz bete diren; eta azkenik, formakuntzak burutu dituzten hezitzaileek eginiko balorazio orokor bat.


5.1. IKASLEEN EBALUAKETA

Tailerrean parte hartu duten kasle guztiek honakoa bukatzean saioen deskribapenean aipatutako ebaluaketa bete dutu. Guretzat zinez garrantzitsua da arreta berezia jartzea haien iruzkinetan.

Adierazle oso garrantzitsua da hau. Izan ere, familia eta sexu aniztasunaren bitartez, norberaren errealitatearen inguruko hausnarketa egitera bultzatzen digu eta beraien egunerokotasunean horren ohikoak ez diren izateko eta sentitzeko aukerak plazaratzen ditugu “normala” hitza zalantzan jarritz.

Ikasleen erosotasun eta jakinminari bagagozkie, eskola guztien erantzunak bateratuta ikasleen gehiengoak gustora egon dela adierazi du eta egindako jarduerak gustatu zaizkiela.

EROSO EGON ZARA TAILERREAN ZEHAR?



Prozesu honetan, deseroso sentitzea ohikoa izan ohi da, gelaren aurrezagutzen arabera oso desberdina baita ikasle batetik bestera egon daitekeen aldea, urtero pasa den zerbait da, eta ez diogu zantzu negatiborik ikusten, baizik eta beraien prismatik ateratzen denaren informazio hastapen bezala ikusten dugu.

Beraz, orokorrean gustora egon direla jakiteak segurtasun handia eman digu tailerraren metodologia eta edukiaren berrikuspena egiterako orduan. Gainera, segurtasun giro bat bermatzeari garrantzi handia eman nahi izan diogu saioan beraien zalantzak eta ezinegonak esaterako orduan aske sentitu daitezen.


Gela guztiak anitzak dira, ez dago pertsona bat bestearen berdina denik, eta adin hauetan garrantzitsua da enpatia norberarengandik hautematea. Horretarako, beraiek pairatutako estereotipoak nola eragin dieten ikusarazi nahi izan diegu, gainerako errealitateekin enpatiza dezaten eta noski gela bakoitzeko testuingurura egokituz, aipatu bezala gela bakoitzaren errealitatea oso ezberdina baita.

Hala ere, ebaluaketa batzuetan galderak egitera ausartu ez direla jakinarazi digute, baina hori norberaren aldaratearen araberakoa da maiz, eta gero, tailerra amaitzerakoan, ikasleetako asko guregana gerturatu dira bakarka galdera edo ezinegonak partekatzera denen aurrean esan nahi ez zutelako.

Gustora sentitu ez den gehiengoak gaiarekiko deserosotasunagatik izan dela aipatu du, batez ere sexu aniztasunaren atalean. Askorentzat, familia aniztasuna eta gizartean elkarbizi diren desberdintasunak LGTBIQ+ ikuspuntutik lantzen dituzten lehenengo aldia da, beraz, gelan jarrera positiboa izan arren, deserosotasun hori sentitzea ohikoa da zerbait berria delako eta agian formakuntza jaso aurretik zeukaten ikuspuntua negatiboa zelako.

Bestalde, iruzkin negatiboak egin dituztenen artean profil nabarmen bat dago, gelan jarrera negatiboa izan dutenak izan dira hain zuzen ere, atentzioa deitu zaielako eta lehendik zuten perzepzioa ez dutelako deseraiki, kasu hauetan tailerra motz geratu da eta egin beharreko lanketak sakonagoa izan beharko luke.

ESKOLA BAKOITZEKO BATAZ BESTEKO



Bestalde, saioek jaso duten batz besteko nota **8,65** izan da. Eraitza ona dela deritzogu, gainera aurreko urtearekin alderatuta hobea izan da, beraz, aurreko urteko akatsez ikasi eta jarduna hobetu dugu, proiektua arrakastatsua izanez.

Urtero errepikatzen den iradokizun bat saioak luzeagoak izatea da, eta irakasleek ere aipatu digute maiz interesgarria litekeela tailerrekin ordu gehiago eskaintzea, lanketa sakonagoa izan dadin. Izan ere, aurreko urteetan ez bezala, eskola gehienetan irakasleak gela barne egon dira. Gainera, pentsatuta dugun programazio eta edukiak gai jakin bati buruzko lana hobesten duenez, ez digu sexualitateari buruzko beste alderdi batzuk behar den sakontasunarekin lantzea uzten, premia garrantzia izan dezaketenak.

Etorkizunera begira baloratu beharreko alderdi bat bezala ikusten dugu, baina egin izan ohi dugun edukia oso esaguratsua dela deritzogu eta gaiaren lanketaren hastapen moduan baliagarriak dira.

5.2. HELBURUEN EBALUAKETA

Memoriaren hasieran aipatutako helburuak kontuan izanik, proiektuaren arrakasata maila aztertuko da helburu espezifikoetan sakonduz. Aldez aurretik, arestian aipatu dugun oinarritzko helburua lortu dela esan genezake.

Aipatu beharra dago Irungo 6. eta 5. LH-ko ikasleak aniztasun afektibo sexualean eta familia aniztasunean heziak izan arren, ez dela lortu Irungo eskola guztietara iristea, 9 izan dira guztira baina 2k ez dute parte hartu nahi izan, hain zuzen ere, San Vicente de Paul eta Erainek, beste urte batez, ez dute formakuntzan interesik erakutsi.

- Aniztasun sexualean eta familia aniztasunean hezteak:

Saioen abiapuntua aniztasuna gizartearentzat zein aberasgarria den jabetzea izan da. Horregatik, aniztasun sexualean eta familia aniztasunean sakondu aurretik, aipatutako bideoaren bitartez kultura-aniztasuna, arrazismoa, aniztasun funtzionala, erlijio-aniztasuna eta abar ere landu dira, enpatia eta aniztasun orokor bat sustatu behar baita gaia sakontasunez ulertu ahal izateko.

Gizartean dauden desberdintasunak lantzeaz gain, LGTBIQ+ kolektiboari buruzko kontzeptuak edo terminologia argitu da, hori baita formakuntzaren muina. Izan ere, terminologiaren aldetik, hitz asko entzun dituzte, baina definizioa ematerako orduan, zalantza handiak zituzten. Hala ere, aurrezagutzen aldetik gainerako urteetan baina maila handiagoa egon da orokorrean eta hausnarketak ere sakonagoak izan dira.

Guztia barnebiltzeko, askotariko familiei buruz hitz egin da, bertan egon daitezkeen desberdintasunengatiko gatazkak azpimarratuz. Diskriminazio egoera bat aniztasun egoera batera bihurtzea da antzerkiaren helburua; enpatiaren bitartez bazterketaren zergatia ulertu eta eraldatu, horrela egoera horiei aurre egiteko tresnak eratorriz.

Ebaluaketei esker Irungo gazteak aniztasunean hezten ari garela uste dugu hala jakinarazten digutelako eta urterik urtera gure lanaren emaitzak nabarmenak izan dierelako.

Ikasleen gehiengoak nabarmentzen du zerbait ikasi duela saioetan, asko gustatu zaiela gaia lantzea eta ordu gehiago eskaintzea gustatuko litzaiekela. Urtero gero eta aniztasun handiagoa aurkitzen dugu geletan eta aniztasun horrek maiz berarekin dakar diskriminazioa ere, baina horregatik goraipatu behar da eskola hauen nahia formakuntza hau jaso eta gatazka egoera hauei irtenbide bat emateko.

Horregatik, aniztasunean lan egitearen aldeko apustua egiten jarraitzen dugu beste ikasturteetan ere gaiaren inguruko formakuntza gehigarriak eskainiz. Hori haurtzarotik lantzeak etorkizuneko erasoak, intolerantziak, diskriminazioak eta abar saihestu ditzake eta.

- **Aniztasunarekiko errespetua lantzea:**

Illo horretatik jarraituz, ezinbestekotzat jotzen dugu haurtzarotik aniztasunaren errespetua jorratzea. Aniztasuna lantzen dugu guztiontzako aberastasun-iturri gisa, hausnarketa modu dibertigarri eta arinean sustatuz eta elkarrengandik ikasiz. Lehenik eta behin, ikasleek euren bizitza bizitzeko moduen aniztasuna barneratzea lehenesten dugu, eta bakoitzak aukera zilegi bat dela ulertarazteko lan egiten dugu.

Aitzitik, errespetu faltak, askotan ezjakintasunaren ondorio dira. Beraz, garrantzitsua da gazteek aniztasunari buruzko kalitatezko informazio positiboa izatea. Bizitza-aukera desberdinak ikusarazteak lagundu egiten du bere iruditegiatik ateratzen den guztiarekiko sentimendu negatiborik eta aurreiritzirik sor ez dadin, enpatia areagotuz eta norberaren autoperzepzioa hobetuz.

Desberdintasunak eta horien ondorioz ematen diren diskriminazioak landu direnenan, gela askotan beraien artean gertatu izan diren edo ezagutzen dituzten egoerak partekatu dituzte, beste zenbaitetan aldiz, gelan aniztasuna dagoela baieztatzen duten arren, irakasleak esan ohi izan digu oso ondo ikasita dutela esan behar dutena baina gero errealitatea desberdina dela eta eman izan direla egoera bortitzak. Zenbat eta egoera gertukoagoa izan, gero eta lanketa sokonagoa egitea lortzen da, testuingurua ulertzeko abiapuntu ezinhobea aurkeztzen dutelako.

Guztiak baztertuta sentitu dira noizbait, eta garrantzitsua da momentuan esatera ausartu ez diren arren, hitz egiten goazen heinean beraien bizipenekin lotura egin eta ikastea.

- **Gatazka egoerak ekiditea:**

Irain lgtbi+foboa, arrazista eta xenofobo, kapazitista eta abar, inpunitate osoz eta modu normalizatuan erabiltzeko joera dago gaur egun modu kontziente edo inkontziente batean. Askotan, ikasleak ez dira konturatzen erabiltzen dituzten hitzak mingarriak izan daitezkeela.

Askotan, ez dute hausnartzen erabiltzen dituzten esaeren esanaiaren inguruan eta horren adibide garbia da "maricón" hitzaren erabilera mutilen kasuan batez ere. Gainera, aurreko konturatu gara TikTok aplikazioan biralizatu duten "trend" batean "english or spanish" deiturikoan, gaya izatea gutxiestea modan jarri dela. Askotan hau pentsatu gabe egiten duten zerbait da, LGTB+ kolektiboarekin ez lotu arren, haien egunerokotasunean erreproduzitzen duten zerbait da, zantzu negatiboarekin.

Bestalde, elkarren artean sortzen dituzten harreman dinamikak bortizkerian oinarritzen dira askotan, maskulinitatearekin zerikusia duten ezaugarriak azpimarratuz. Besteak beste, oso ohikoa izaten da gela gehienetan botere harremanak agertzea, eta baita lidergo toxikoak ere, joera hauek areagotuz.

Gure aldetik, jakitun gara egiten ditugun esku-hartzeak laburrak direla eta gatazka-egoerak saihesteak denbora behar duela. Hala eta guztiz ere, ikusi ahal izan dugu errealitatearen hurbilketa egiteko lagungarria zaigula tutoreei gaia lantzerako orduan nola kudeatzeko aholkuak eman diezaizkiogekulako eta aditu bezala, klasearen beharren inguruko iritzia ere eman dezakegulako.

Bestalde, lantzen dugun edukia oso eraginkorra dela ikusi dugu, ikasleek hitz egiten goazen heinean jabetzen direlako egokiak eta mingarriak diren jarreraz. Hasieran aurkeztu ziren gatazka egoerei tokia eman zaie eta tailerrean zehar sortu diren fikziozko egoeren aurrean eskuragarri dituzten tresnak aurkeztu zaizkie.

1.1. HEZITZAILEEN EBALUAKETA OROKORRA

Hezitzaileon iritziz, aurtengo proiektuan egindako esku-hartzeak arrakastatsuak izan direla esan dezkegu. Proposatu ditugun helburuak betetzea lortu da eta parte hartu duten pertsonen (ikasle, irakasle, orientatzeileen...) feedbackari esker saioak baliagarriak eta asebetetze maila altukoak izan direla ikusi dugu, aurreko urtearekin alderatuta gainera emakitza hobeak lortu dira. Oro har, proiektua aurrera eraman dugun partaide orok oso positiboki baloratu du egindako lana.

Garrantzi berezia eman diogu saio bakoitzaren bukaeran gela bakoitzeko tutorearekin biltzeari. Gelan ikusi ditugun jarrerak nabarmentzeko ekarpen eta hauteman ditugun puntu ahulen inguruan hitz egiteko eta aholkuak emateko ea egoera horiek nola kudeatu. Tutoreek asko eskertu dute informazio hori partekatzea, izan ere, horrela, badakite beraien ikasleekin zer landu dezaketen eta zertan jarri behar duten fokua.

Ikasketa burua eta orientatzailearekin ere bildu gara aukera izan dugun guztietan, nahiz eta batzuetan ez ditugu topatu. Honen bitartez, etorkizunean sortu daitezkeen gatazken aurrean nola esku-hartu daitekeen hausnartu dugu, batez ere behar berezi bat ikusi dugunean. Ebaluaketa gehienetan azpimarratu dute denbora gutxi iruditu zaiela edo joko edo bideo gehiago egin nahiko lituzketela.

Izan ere, gelan norbaitek zalantza bat partekatu duenean, kontrako jarrerak eman direnean edo norbaitek esperientzia pertsonal bat kontatu duenean, urtero bezala tailerraren eskema berrantolatu behar izan dugu momentuko beharra lehenetsiz eta landu behar zena era laburrago batean eginez edota pentsatuta genituen dinamikak murriztuz. Hala eta guztiz ere hau oso positiboa izan da, izan ere, emaitza hobeak lortu ditugu gela horietan zeuden erreatikate espezifikoetan esku-hartu ahal izan dugulako arazoaren muinera iritsiz.

Hala eta guztiz ere, hausnarketa sakon edo luzeagoak egitean pentsatuta genituen joko guztiak burutu ahal ez izatea ekarri duenez, zenbaitetan eta ikasle batzuentzat astunegia izan da tailerra.

Balantza egiten bada beharrari erantzutea lehentsi behar dugu. Askotan ezin dugu aurreikusi zein ezinegon sortuko diren gela bakoitzean, beraz, momentuan garrantzia eman behar diegu haurrek dituzten beharrei, edukia bere osotasunean lantzen saiatuz.

Eskolaz eskola egoera desberdinak aurkitu ditugun arren, nabarmendu nahi genuke jakintza maila geroz eta altuagoa dela urtetik urtera orokorrean, hausnarketa sakonak egon dira eta ikasleetako askok egin dituzten ekarpenak oso aberatsak izan dira.

Azken urteetan gaiarekiko diru eta denboran egin den inbertsioa nabaria da eta ikasleek ideia argiagoak eta landuagoak dituzte, baita irakasleek ere. Honek ez du esan nahi ez dagoenik lanik egiteko, baizik eta egiten ari garen lana ikusgarria dela eta azalekoak ez diren gaietara iristeko aukera paregabea aurkezten zaigula Irungo eskoletan.

Aurreko urteko datuak alderatuz, batazbestekoa altuagoa izan da eta kanpotik iristen zaien informazioa negatiboagoa izan arren, urtetik urtera enpatia eta hausnarketa maila askoz esanguratsuagoa izan da. Guk hezitzaile bezala bereziki disfrutatu ditugu aurtengo tailerrak, alderdi guztiei erreparatuz zinez aberrasgarria izan baita. Ikasleek orokorrean asko eskertu dute aniztasun ikuspegitik izateko eta sentitzeko aukeren inguruko informazioa jasotzea, eta dibertigarria izan dela bermatu dute, beraz aniztasuna dibertsioarekin lotu dute eta hori da bilatu nahi genuena .

Hezitzaileontzat ezinbestekoa da aniztasuna ikuspegi positibo batetik lantzea iraganean izandako estigmak, esterotipoak eta gai hauekiko dauden mugak atzean uzteko. Sexu eta familia aniztasunarekiko ikuspuntuaren eraldaketa gutxinaka badoa hautematen eta tailerretan ere aldaketa hau isladatzen da. Beraz, ondorioztatu dezakegu eskolak zein familiak gurekin elkarlanean inplikazio maila altua dutela gaiarekiko eta tailerrak burutzeko dugun metodologia arrakastatsua dela.

Hala eta guztiz ere, familia bakarra izan den arren, eskola batean tailerra jaso aurretik ama batek idatzi zuen oso arduratuta tailerrean jorratu behar ziren gaiak gehiegizkoak iruditzen zitzaizkiola esanez, hala eta guztiz ere, eskolak erantzun zion beraiek urteak daramatzatela tailer berdina gurekin burutzen eta beraien aldetik adin eta eduki aproposa iruditzen zaiela. Gero gela horretan oso ondo joan zen tailerra eta oso ebaluaketa arrakastatsuak jaso ziren.

Maiz, proiektu hau ikasleengana bakarrik iristen denez sexu eta familia aniztasunari buruzko ikuspegia ez da eskola komunitate osora zabaltzen eta honakoa lehenetsi beharko genuke, gizarteko pertsona ororen ongizatea eta bizikidetzat sustatzeko.

Esparru guztiei erreparatu ondoren, ondorioztatu dezakegu saioak zinez oparoak izan direla parte hartu duten eskolentzako. Aurretiaz aipatu moduan, aniztasuna bere orokortasunean lantzeak, eta zehazki LGTBIQ+ kolektiboa zein familia aniztasunaren inguruko zantzuen berri hitz egiteak, gazteei errespetu eta tolerantziatzeko atmosfera batean murgilarazten die. Askotan, beraien burua ere jorratutako gaien islada kokatzen dute, eta lagungarria zaie norberaren egoera ulertzeko, baita babesa sentitzeko ere, gainerako ikaskideen iritziak entzunda, haur askorentzat honakoak une garrantzitsuak izaten direlarik.

Bestalde, gaiak horren gertutik eragiten ez dien horiei ere errealitate hauetara gerturatzea ahalbidetzen die, kanpotik etortzen zaizkien iritzi negatiboetan esku-hartuz, enpatia areagotuz eta besteen azalean jarritz, honakoa guztiz beharrezkoa izanik.

Bihotz-bihotzez eskertzen diogu Irungo Udalari beste behin ere aniztasunaren alde apostua egitearren eta proiektu beharrezko zein polit hau ahalbidetzeagatik, Irungo hiritarrak askatasunez bizi daitezen, urtetik urtera ereindako haziaren uzta jasoz.

2. ERANSKINAK

IKASTETXEA	MAILA	IDENTITATEA					GUZTIRA	GUZTIRA EGON ZARA			NOTA	1-10
		EMAKUMEA	GIZONA	EZ BITARRA	EZ DAKIT	EZ DUT ERANTZUN NAHI		BAI	EZ	BATZUTAN		
EGUZKITZA	5A	9	11	2	1	0	23	20	2	1	189,6	8,24
EGUZKITZA	5B	8	12	0	1	0	21	16	1	4	187,2	8,91
GUZTIRA		17	23	2	2	0	44	36	3	5	376,8	8,56
TOKI ALAI	6A	13	10	0	0	0	23	22	1	0	193,5	8,41
TOKI ALAI	6B	9	11	0	1	0	21	16	2	3	154,7	7,36
TOKI ALAI	6D	15	7	0	1	0	23	20	1	2	196	8,52
GUZTIRA		37	28	0	2	0	67	58	4	5	544,2	8,12
BELASKOENEA	6A	5	6	0	1	0	12	12	0	0	109,3	9,1
BELASKOENEA	6B	0	10	0	0	0	10	10	0	0	87,29	8,79
GUZTIRA		5	16	0	1	0	22	22	0	0	196,59	8,93
EL PILAR	6A	11	14	0	1	0	26	21	0	5	222,44	8,55
EL PILAR	6B	11	11	0	0	1	23	23	0	0	201,6	8,76
GUZTIRA		22	25	0	1	1	49	44	0	5	424,04	8,65
DUNBOA	6A	7	9	0	2	0	18	15	1	2	148,5	8,25
DUNBOA	6B	12	9	0	0	0	21	19	1	1	177,7	8,46
GUZTIRA		19	18	0	2	0	39	34	2	3	326,2	8,36
LA SALLE	6A	10	14	0	0	0	24	20	0	4	214,25	8,92
LA SALLE	6B	12	9	0	4	0	25	24	1	0	220,65	8,82
GUZTIRA		22	23	0	4	0	49	44	1	4	434,9	8,87
TXINGUDI	5E	11	12	0	0	0	23	19	0	4	204,5	8,89

IKASTETXEA	MAILA	IDENTITATEA					GUZTIRA	GUZTIRA EGON ZARA			NOTA	1-10
		EMAKUMEA	GIZONA	EZ BITARRA	EZ DAKIT	EZ DUT ERANTZUN NAHI		BAI	EZ	BATZUTAN		
TXINGUDI	5D	12	9	0	0	0	21	18	0	3	155,9	7,42
TXINGUDI	5A	9	10	1	3	0	23	21	1	0	220,2	9,57
TXINGUDI	5B	11	11	0	0	0	22	20	1	1	191	8,68
GUZTIRA		43	42	1	3	0	89	78	2	8	771,6	8,66
LEKAENEA	6	8	6	0	0	0	14	14	0	0	127	9,07
ELATZETA	6B	5	10	0	0	0	15	13	0	2	138,7	9,24
ELATZETA	6A	9	5	1	0	0	15	14	1	0	111,9	7,46
ELATZETA	6C	8	7	0	0	0	15	15	0	0	139,9	9,32
GUZTIRA		22	22	1	0	0	45	42	1	2	390,5	8,67